

# Funtsezko baliabideak

## **Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen produktuak funtziona dezan?**

Gure ustez, produktua funtziona dezan, lau taldetan banatuko ditugu.

### 1. BALIABIDE FISIKOAK:

Gure produktua lortzeko zenbait baliabide fisiko behar ditugu. Lehenbizi, zenbait eraikin eta lokal behar ditugu. Lehen eraikina, tailer bat izango balitz bezala erabiliko genuke. Tailer horretan bertan, zenbait makina beharko genituzke gure produktua gauzatzeko. Lokala, gure produktua jendeari erakusteko eta erosleek gure produktua eros dezaten erabiliko genuke, hau da, denda arrunt bat bezala. Produktua sortzeko zenbait material beharko ditugu. Horrez gain, gure dendan ordenagailu bat eta telefono bat beharko dugu.

### 2. BALIABIDE INTELEKTUALA ETA GIZA BALIABIDEAK:

Baliabide intelektualaren atalean, produktua sortzeko, makineria ondo erabiltzen dakien jendea beharko dugu. Montajea ondo egin beharko dugu ez delako oso errez egiten den produktu bat. Horiek tailerrean lan egingo dute. Horrez gain informatikan oso aditua den norbait behar dugu. Horrek gure orrialde web-a egingo luke non produktua ere salduko dugun. Gainera, dendan lan egingo duen norbait behar dugu, jendearen aurrean eroso egoten den norbait behar dugu horretarako. Horrez gain, internet bide erosi nahi dutenek telefonoz deituko dute eta norbait egon behar da telefonoari erantzuteko.

### 3. FINANTZA BALIABIDEAK:

Gure proiektua egiten hasteko ikusten duzuen bezala nahiko baliabide beharko ditugu eta baliabide horiek lortzeko finantza baliabide nahiko handia beharko dugu. Lehenbizi, gure aurrezkiak jarriko ditugu. Gainera, mailegu bat eskatuko diogu banketxeari. Mailegu hau gure produktua saltzen irabaziko dugun diruarekin bueltatuko diogu bankuari.